


Txiikittu

2014ko abendua

148 zbk.


Gabonak 2014
Ondo pasatzeko
sasoia



txistek bitxikeriak sukalden denbopasak eskulanak



Taxis Teak



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri
eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Esaten dio neska batek beste bati:

- Badakizu zer? Nire ahizpak aho zabalik uzten du jendea.
- Zergatik?
- Dentista delako.

Peio Gonzalez



Andereñok Jaimitori:

- Jaimito, esan asteko egun bat.
- Atzo.
- Baina atzo ez da asteko eguna.
- Ez zen ba, atzo, osteguna?

Naiara Mcelroy



Gizon bat jai-aretoke atezainarengana hurbildu eta:

- Aizu, hemen al da nagi eta alferren lehiaketa?
- Bai, jauna, sartu barrura.
- Ez, ez, sar nazala norbaitek.

Iraia Oruezabal



Emakume batek, txoridendara sartu eta kaiolan dagoen txoriaren izena galdetzen dio gazteari. Eta erantzuten dio mutilak:

- Auskalo!
- Eta emakumeak:
- O! Zein auskalotxo polita!

Asier Elkoroberezibar



Mozkor batek etxeko giltza ateratzen du poltsikotik baina ez du lortzen sarrailtzuloan sartzerik. Hurbildu eta galdetzen dio gazte batek:

- Nahi duzu laguntzea?
- Bai, bai, noski. Giltza sartzen saiatzen naizen bitartean, eutsiozu etxeari.

Eider Gomez



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



- ★ Turista bat Bilboko udaletxe inguruan dago, hegan dabiltzan usoei begira. Bat-batean, blaust! Goitik zerbait erori eta jaka zikintzen zaio. Narrazkeria hura ikustean, gora begiratu eta esaten du hasperenka:
- Ai ene, gaitzerdi hala ere! Eskerrak behiek ez duten hegan egiten!
Maidor Dorrio

- ★ Ikerrek:
- Aitatxo, bizikleta bat erregalatu didazula egin dut amets bart. Zer esan nahi ote du horrek?
- Ba horixe, ametsetan egin duzula.
Olatz Basterrika

- ★ Gizon bat paseatzen dabil itsas txakurrarekin; lagun batekin topo egin eta galdetzen dio lagunak:
- Zer zabilta itsa txakur horrekin kalean?
- Erregalatu egin didate eta ez dakit zer egin beronekin.
- Eramazu zoorra!
- Eraman du zinemara eta jolas-parkera ere, baina inon ez dago konforme.
Irati Beraza

- ★ Mozkor batek esaten dio lagunari:
- Zer dago munduan baso bete ardo baino gauza hoberik?
- Upela bete ardo!
Moussa Afassi




- ★ Bixentek, New Yorken zegoela, telebista erosi zuen familiari ekartzeko.
- Han, zuen Euskal Herrian, ez al dago telebistarik ala? - galdetu zion saltzaileak.
- Bai, noski, baina askoz politagoak dira hemengo programak.
June Artetxe

Denborapasak

Bete hutsuneak Eibar Foball

Taldeko 10 jokalarien izenekin

Saul
 Boateng
 Capa
 Manu del Moral
 Lekic
 Arruabarrena
 Errasti
 Boveda
 Angel
 Javi Lara



Nahia Obasola

HIZKI-ZOPA

- Eskola
- Udaberria
- Coliseoa
- Elisa
- Kiroldegia
- Iparoa
- Parkeak
- Dorrea

O	L	U	Z	B	A	E	S	K	O	L	Z	A
L	U	D	A	L	E	T	X	E	A	N	E	M
A	B	C	O	L	I	S	E	O	A	R	G	F
S	S	K	Z	I	Z	X	J	F	R	Z	B	A
R	S	R	C	O	L	I	P	O	M	D	A	U
E	Z	S	B	X	R	E	D	N	P	S	H	R
P	P	A	R	K	E	A	K	Z	I	T	X	U
P	P	E	A	I	K	I	R	L	Z	C	I	P
Q	K	I	R	O	L	D	E	G	I	A	S	I

Malen Garate

Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Julen Zuazo** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Zorionak!



ASMAKIZUNAK

- 1 Gona luzea du, mihi motza, urrutitik entzuten da haren kantu hotsa. Zer da?
.....
- 2 Zuri-zuri eta biribil, iluntasuna arintzen dabil. Zer da?
.....
- 3 Mendian, berde. Zakuan, beltza. Sutan, gorri. Zer da?
.....
- 4 Ahoa zabaldu dit, begitxoak itxi, lo asko egin ezean, ezin diot eutsi. Zer da?
.....


BIDALI ERANTZUNAK URTARRILAK 14 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

AdinaTel.....


Denborapasak

AURKITU 5 DIFERENTZIAK



Julene Andres

KALKULATU ETA MARGOTU




Angel Luis

ERREPORTAJEA

Euskeriak 365 egun Eibarren

Joan den abenduaren 3an Euskeraren Eguna ospatu genuen. "Euskeriak 365 egun Eibarren" hartu genuen goiburu, eta horren inguruan hainbat ekitaldi egin genituen: bertso-manifestua, kalejira eta Untzagan goiburua kandezez argiztatu genuen, abestu eta dantza egitearekin batera.

Ikastetxeetan ere ospatu zenuten egun hori, eta bertan duzue argazki-bilduma.




Amaña Ikastetxea



La Salle Isasi Ikastetxea



Aldatze ikastetxea



J. Mogel Ikastola



Urkizu ikastetxea



San Andres ikastetxea

PIRRITX PORROTX ETA MARIMOTOTS



Euskal Irrian jaio ginen, ez dugu gogoratzen noiz jaio ginen, egunero betetzen ditugu urteak, gaur 7, bihar 5, etzi 3 eta etzidamu 6. ZAPATAUNDI kalean bizi gara, SUDURGORRIENA etxean



Itsasoa ala mendia?

Euskal Herrian elkarren ondoan ditugunez biak!!

Gozoa ala gazia?

Porrotxek txorixo planplona txokolatearekin betera ogi tartean meriendatzen du.

Uda ala negua?

Udaberri ala udazkena? Eguzkia eta ilargia.

Jatekorik gustokoena?

Amona Joxefinaren patata tortilla, pilla, pilla!

Umetan ikasgairik gustokoena? Eta gutxien gustatzen zitzaizuna?

Maitematikak maite ditugu, batuketak kenketak baino gehiago. Gauzak errepikatuz buruz ikastea ez dugu batere atsegin, bihotzarekin ikasten dena ez da ahazten.

Kolorerik gustokoena?

Ostadarra! Zeruaren urdiña, eguzkiaren horia, mendiaren berdea, kalabazaren laranja, amamaren morea eta sudur gorria, gora ostadarra!!

Gustukoen duzuen kirola?

Katxondikleta, barreak gihar guztiak mugitzen ditu!!

Animaliarik baduzue etxean?

Bai, Lagun txakurra, Pitxitxi katua, Joxepa behia, Pantxika astoa, Margarita oiloa eta zazpikoloroa.

Txistek kontatu ala entzun?

Muxuak bezala, eman eta jaso.

Birziklatzen duzue?

Bai, maite dugulako natura eta geure burua.

Telebistako saio bat?

Bizipoza (ametsetan ikusten dugu begiak itxita).

Pelikularik gustokoena?

Ilargiaren sekretua, HIK HASI aldizkariak ekoiztua.

Egun perfektua.

Egun bakoitza.

Nola dago mundua?

Zuri beltzean baina haurrok eta herri txikiok mundu(ko)loreak maite ditugu.

Zerk haserretzen zaituzte?

Homo, xeno,... eta fobia baztertzaille guztiak baina saiatzen

gara ez haserretzen, ez du merezi.

Zerk poztu?

Elkarrekin eskutik helduta irribarrea ahoan aurrera egiteak. Gure esku dago!

Oporretarako leku bat.

Amamaren baserria.

Definitu Eibarko ikusleak.

Politak, jatorrak, irudimentsuak, alaiak, langileak, festazaleak, ... maitagarriak. Gora autoestimua!!

Euskera osasuntsu dago?

Euskara osasuntsu dago eta gu ere bai euskaraz egiten badugu.

Zer egin bultzatzeko?

Kantatu, dantzatu, jolas egin, maitatu eta bizi euskaraz.

Opariak egin ala jaso?

Txisteen moduan ematea eta jasotzea elkartasuna da.

Gogoan duzuen unerik pozgarriena.

Muxu, besarkada eta irri bakoitza.

ikastetxeetako berriak



Lehenengo hiruhilabetea irteera ugari egin dituzte **J.A. MOGEL IKASTOLA**ko neska-mutilek. Batzuk egunean zehar gai ezberdinak jorratzen aritu dira: Eskoriatzako museoa, Eibarko herria hobeto ezagutu, Deba-Behea eskualdea bisitatu... Hortik aparte, ziklo bukaera bi eguneko irteerak egin dituzte, adibidez 4. mailakoak Baratze Baseri Eskolan egon ziren. Esperientzia polita izan da, ortua landu, abereak ezagutu eta jaten ematea. Primeran pasatu zutela diote.

URKIZU eskolan San Andres eguna ospatu genuen eta igeriketa ikastaroa ere izan dugu. Euskararen Egunarekin bat egin genuen abenduaren 3an eta 22an, Olentzero bisitan etorriko zaigu eskolara. Abenduaren 23an Gabonetako kalejira egingo dugu.

SAN ANDRES ikastetxean primeran pasatu genuen "kirol astea" ospatzen. Asteazken goizean waterpolo praktikatzen genuen, eta arratsaldean, Eibar Futbol Taldeko jokalaria eskolara etorri ziren. Ostegunean, Ander Romarate paralinpiko eibartarrak bere esperientzia kontatu zigun eta ostiralean futbol aretoa praktikatzen genuen. Astea amaitzeko, familiarekin hainbat jolas egin genituen eskolan.



San Andres jaien inguruan, **ALDATZE**ko ikasleek lehiaketa bat egin dute eta fritu eta barazkiekin irudiak egin dituzte. Zoragarriak irten dira!!

LA SALLEko ikasleek igeriketa ikastaroak izan dituzte, eta baita diplomak eskuratu ere! Azaroaren 28an San Andresak ospatu genituen eta patioko orduan txorizoa jan genuen, ederra baino ederrago! Azoka produktu mordo batekin jantzi eta gurasoak etorri ziren ikustera. Ospakizuna dantzekin eta sokatira egingez bukatu genuen.



ARRATEKO ANDRA MARIn ere gelditu gabe ibili gara azkenaldian. San Andresetan azoka ederra antolatu genuen eta horrez gain, bertsoak, abestiak eta herri kirolak izan genituen, eta oso ondo pasatu genuen. Azaroaren erdialdean HH-ko 4 eta 5 urtekoak irteera pedagogikoa izan zuten Oñatiko natur eskolara. Zenbat animalia ikusi zuten bertan! Bestalde, Gabonetako lanetan dihardugu buru-belarri: gabonetako postalak, kalejira, Olentzeroren gutunak...



ETXEKO ARTISTA


PINGUINOAK

Materiala:

- 2 freskagarri botila
- Paperezko zela (karrozari-zinta)
- Artaziak
- Errotuladore beltza
- Kolore desberdinetako margoak
- Oihal zatitxo bat
- Kola
- Borla edo ponpoia

Pausoak:

- 1.- Fraskagarri botila bat erditik moztu eta beste botila ipurditik moztu.
- 2.- Botila bat bestean sartu eta paperezko zelaarekin inguratu, ondo lotuta gera daitezen.
- 3.- Margo zuriarekin dena margotu.



- 4.- Errotulagailu beltzarekin pinguinoaren aurpegi eta sabelaldea marraztu (sagar formarekin)
- 5.- Pinguinoaren txapela izango dena ezezik, gainontzekoa beltzez margotu.
- 6.- Pinguinoaren aurpegia eta txapela nahi duzun moduan margotu.
- 7.- Amaitzeko oihal zatitxo batekin pinguinoaren bufanda egin eta txapelan ponpoia itsatsi.

Ti-ta!

Harrapatu negua!

Harrapatu negua eta sartu ezazu zure bolatxo berezian. Behar duzuna: plastikozko baso gardena, kartulina, algodoia eta figuratxo txikiak. Moztu kartulina basoaren ahoa baino zertxobait handiagoa. Itsatsi kolarekin algodoia eta figuratxoak kartulinan eta pegatu basoa gainean.



ETXEKO SUKALDARIA



ELUR-PANPINA


OSAGAIAK

- ✓ 3 gaileta Oreo txiki (edo antzekoak) piruleta bakoitzeko.
- ✓ Txokolate zuri urtua
- ✓ Piruleta makiltxoak
- ✓ Gominola txikiak, txokolate txikiak...

PAUSOAK

- 1.- Hiru gailetatxo zabaldu. Piruletaren makiltxoa krema duten gaileten gainean jarri, eta pixkat estutu, kontuz gailetak apurtu barik.
- 2.- Kremarik ez duten gailetetan txokolate zuri hurtu pixkat jarri eta itxi gailetak. Sikatzen utzi piruleta apurtu ez dadin. Nahiz izanez gero, lana azkartzeko, hozkailuan sar ditzakezue piruletak.

- 1.- Ondo sikatu direnean sartu piruletak txokolatean eta txokolatea gogortu baino lehen, azkar azkar apaindu piruletak gominola eta txokolateekin, elur-panpinak izango balira moduan. Sikatzen utzi eta listo! Prest dituzue elur-panpin goxogoxoak!



ABENDUA ETA URTARRILEKO agenda

abenduak

24

OLENTZEROREN KALEJIRA,
18.00etan, Untzagatik hasita. 19.00etatik
aurrera Olentzero udaletxean umeekin
egongo da azken eskutitzak jasotzeko.

abenduak

29

**HIRU TXERRITXOAK ETA
OTSOA ANTZERKIA.**
Coliseon, 17.00etan. 5€

abenduak

26
urtarrilak
3

**ASTELENA GABONETAKO
HAUR PARKEA,**
(abenduak 28 eta urtarrilak 1 itxita)
2-12 urte bitarteko umeentzako.
Ehunzangoa, piloten igerilekua, puzgarri
txikia, tailerrak... Sarrera 3€ edo doan
Eibar Merkatal Gune Irekiaren bonoarekin.
Sarrera ordu eta erdikoa.
Ordutegia: 11.00-14.00 / 17.00-20.30
Abenduak 31: 11.00-14.00

abenduak

30

**PATXIN ETA POTXIN-EN
TXANGOIA ANTZEZLANA.**
Coliseon. 17.00etan. 3€

urtarrilak

5

16.30etan Erregeen kabalgata aurreko
DANTZA-IKUSKIZUNA, Ipuruako
kiroldegian.

19.00etan **ERREGEEN
KABALGATA** hasiko da Untzagan.
Kabalgata eta gero, azkeneko gutunak
jasoko dituzte udaletxean.

horoskopoa

ARIES

Alboan duzun lagun horrek zure laguntza behar du, lagun ezaiozu, eskertuko dizu.

TAURUS

Osasun aldefik, bitaminak hartu negu honetan indarrak ez galtzeko. Eta gogoko dituzun bota gorriak armairutik atera berehala...

GEMINIS

Gabonetako turroi guztiak janda dituzula?? Hainbeste txokolate jateak kalte egingo dizu!!!

CANCER

Kirol gehiegi egiten duzunez, nekatuegi ibiliko zara. Hartu atsedena!!! Etxean duzun sofa eroso hori deika duzu...

LEO

Pentsatu duzu urte berrirako desioaren bat? Benetan eskatuz gero, datorren urtean bete egingo da.

VIRGO

Urteari amaiera ona eman nahi diozula? Kezkak eta arazoak egun batez ahaztu, eta momentua gozatu!

LIBRA

Koadrilako lagunak asko maite zaituzte, zuk batzuetan kontrakoa pentsatu arren. Lagun onak dituzu benetan.

SCORPIUS

Aldaketa asko izan ditzakezu, baina lasai, aldaketa horiek oso positiboak izango dira, horietara egokitzen bazara. Ez izan beldurrik!

SAGITARIUS

Urtea mahatsa jaten amaitu beharrean, zergatik ez duzu beste zerbait jaten? Esaterako, fruitu lehorrak?

CAPRICORNIUS

Beti curiositate handiz jokatu izan duzu. Oso adimen azkarra eta kurioa daukazu, eta gauza berriak ikastea ongi etortzen zaizu helburu berriak izateko.

ACUARIUS

Bernak erakutsi nahi dituzula, bada, jai duzu, neguan gaude eta kriston hotza egingo duela diote, atera borregitodun botinak, aizu!!!

PISCIS

Ken itzazu txima luze horiek begietatik, aurrekorik ere ez duzu ikusten-etala! Bada ordua ileapaindegian txanda hartzeko...

ZER IRAKURRI

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN



BASAJAUN TRIKUAK SALBATZEN

Iritsi da uzta biltzeko garaia. Triku familiak errepidearen beste aldera igaro behar du, traktore batek harrapatu baino lehen.

Baina ezinezkoa da dabilen zirkulazioarekin. Nola zeharkatuko dituzte joan-etorriko bi bideak?



MAUD MUNSTRO BELDURGARRIA (VON BAT JAUNAREN DESAFIOA)

Ongi etorri Enbor Ustel eskolara!

Bertako ikasleak mota guztietako munstro beldurgarriak dira eta helburu dute: gizakiak ikaratzen ikasi!

Zer gertatuko ote da Maud Enbor Ustelera bidaltzen dutenean? Bilduma berri eta beldurgarri honetan duzu erantzuna!



DEABRU JAUN MAITEA

Aspaldi honetan larri dabilta infernua: deabruak urtebete baino gehiago daramate deabruzko itunik egin gabe. Deabru andreak lurrera igotzea erabakitzen du familiari laguntzeko "lan" bila...



LIUR AZERIA

Marixak, baserriko lanak egiten dituen bitartean, lau luma aurkitu ditu lurrean botata. Susmo txarra hartuta oiloak zenbatzen hasi da:

-Bat, bi, hiru, lau... lau... lau???

Baina non demontre dago bostgarren oiloa?



XOLA ETA AMERIKETAKO IZEBEA

Xolak ameriketako izebaren bisita izango du... Eta izebaren xelebrekeriak biziko ditu.

EIBARKO LIBURUENDEGAN



DESAGERPEN KASU BAT OPORRETAN

Anette eta Fabrice euren gurasoekin oporretan daude bainuetxe-hotel handi batean. Aspertzeko gogorik ez dutenez, hotela esploratu nahi izango dute eta...

bitxikeriak



Izkirek (kamarioia)
bihotza buruan dute.



Gizonek, egunean, 15.000
berba inguru erabiltzen dituzte,
emakumeek berriz, 30.000 inguru.



Koalak bizitza osoa egon daitezke
urik probatu gabe.

Wendy izena Peter Pan liburuan
asmatu zen.

Eztia da sekula iraungitzen ez den
elikagai bakarra.

Pertsona batek 25.000 aldiz
kliskatzen ditu begiak astean.

Shakespeare-en alaba
analfabetoa zen.

1800. urtea baino lehen 2 oinetako
zapatak berdinak ziren, hau da,
zapatak egiterakoan ez zituzten
eskuma eta ezkerre bereizten.

Los Angeles (AEB) hirian pertsonak
baino kotxe gehiago dago.

Petrolio-tanta bakar batek 25 litro
ur kutsatzen du.

Munduko izenik ohikoena
Mohamed da.

Bihotzak, egunean, 100.000
taupada egiten ditu.

ONDO LO EGIN, MAITEA

NERE BALKOIRA IZAR BAT ERORI DA

Egun batean etxean jaten ari nintzen. Jan eta gero txakurrari jaten eman nion.

Balkoira atera nintzen eta izar bat zegoen. Izarra Intxixu bihurtu zen.

- Nahi bat emango dizut. Zer nahi duzu?
- Munduan poza eta lana guztientzat.
- Oso ondo

Intxixua joan egin zen eta nik oihukatu nuen: Eskerrik asko! Eta ohera joan nintzen.



Maidier Conchas

ILARGIA JOAN EGIN DA



Ilargia zeruan dago. Guk badakigu zeruan gauza asko daudela: izarrak, eguzkia, ilargia, etb.

Ostiral gau batean ez zegoen ilargirik. Ni eta nire lagunak harriturik geratu ginen.

Nire lagun bat oso azkarra da eta esan zigun ilargia joan egin zela, planeta batek jo ziolako.

Azkenean ilargia planeta baten atzean ezkutatu zen.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...

Irati Arizmendiarrjeta

TXATXOAK

Lantz



zu margolari!

